# zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

gazteleraz

## XXII. Zizurkilgo Azoka Berezia

URRIAK 13 igandea



**10:30-14:30/16:30-19:00:** Baserriko produktuak eta artisauak.
Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko Plazara egun guztian zehar
Ordutegia: 10:15-15:00 eta 16:30-21:00

**10:30:** Azokaren irekiera.
Egunean zehar haurrentzat tailerrak, puzgarriak eta pottokak.

**14:30:** Bazkari herrikoia Zimiterioan. Txartelak salgai Iriarte eta Egarri tabernetan. Prezioa: 15 euro.

**18:30:** GIPUZKOAKO HARRI TXIKIEN TXAPELKETA.

**Ondoren:** Txakolin dastaketa.

Zizurkilgo Udala

ZIZURKILGO UDALA

GIPUZKOAKO POTTOKAZALEEN ELKARTEA

kutxabank

Zk. 179/ Udazkena 2019 URRIA | www.zizurkil.eus / 943 691 012
Ernio Bidea 9A, behea, 20159 ZIZURKIL

# PAREKIDETASUNA

## EMAKUME ZIRKULUA SORTUKO AL DUGU ZIZURKILEN?

CREEMOS EL CIRCULO FEMENINO EN ZIZURKIL

Zer da? Emakume zirkulua emakume topaketa bat da, eta bere esentzia bertako emakume bakoitzarekin osatzen da, ez da ezer finkoa, estatikoa, baizik eta elkarren presentziaren baitan sortuko mugimendu energetikoa. Emakume zirkulua espazio intimo eta sakratua da, errespetuz eta maitasunez eraikia. Norbera den bezala azaldu eta garen bezala onartzen gaituen espazioa.

Noiz? **Urriaren 4an** hasita hamabostero
**IRIARTE ETXEAN 18:30**ean

**ZATOZ ZIRKULUA OSATZERA!**

## EMAKUMEA PILOTARI

(pala eta teniseko pilotarekin):

Zizurkilgo Intxaur frontoian asteartero 19:30etik 21:00etara.
18 urtetik gorako emakumeentzat.
Prezioa 190 € (federatu txartela barne).
Zizurkildarrei Udalak federatu txartela ordainduz lagunduko die (50€).



# ZATOZ! GAZTEZULO

VEN A GAZTEZULO!

URRIA

| astelehena | osteguna | ostirala | larunbata |
| --- | --- | --- | --- |
| | 03 PING-PONG TXAPELKETA | 04 PING-PONG TXAPELKETA | 05 GURE BOLARA |
| 07 SLIME TAILERRA | 10 JOLAS LIBREA | 11 ESKULANAK | 12 ARAUTEGIA LANDU |
| 14 JUST DANCE | 17 MAHAI JOLASAK | 18 GURE BOLARA | 19 PELIKULA |
| 21 JOLAS LIBREA | 24 ESKULANAK | 25 MAHAI JOLASAK | 26 GURE BOLARA |

- Astelehen eta osteguenetan 17:00etatik 20:00etara 9-12 urte bitartekoentzat.
- Ostiraletan 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 16:30etik 19:30era 13-17 urte bitartekoentzat.

# EUSKARA

## DIRULAGUNTZAK AYUDAS

**EUSKARA IKASTEKO:** aurten ere Zizurkilgo Udalak herrian bertan euskara ikasi nahi dutenei lagunduko die.

**AUTOIKASKUNTZARAKO:** Euskara ikasi zure erritmoan, ahal duzunean, loturarik gabe eta etxetik bertatik! Tutore baten gidaritzapean eta mintzapraktikak eginez. Ezin da errazago jarri!

**BALDINTZAK:** Zizurkilen erroldatua egotea eta % 85eko asistentzia ziurtatzea. Matrikularen % 75a (gehienez ere, pertsonako 400€) jasotzeko aukera izango da (Autoikaskuntzaren kasuan, asistentziaren %85a mintzapraktiken araberakoa izango da).

## MINTZALAGUNA:

Euskaraz hobeto moldatzeko behar dituzunak: astean behin ordubete, ingurune lasai eta giro atsegina, jende berria ezagutzeko gogoa, hiru pertsonako taldeak (bi euskaldun berri eta zahar bat). Guk lagunduko dizugu! Urrian zehar izena eman dezakezu.

Informazio gehiago udal bulegoetan eta **943 69 10 12** (4. luzapena) telefono zenbakian.





## TEODORO HERNANDORENA XVIII. IPUIN LEHIAKETA

**Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute,** bost maila ezberdinetan: A maila: 6-8 urte; B maila: 9-11 urte; C maila: 12-13 urte; D maila 14-16 urte; eta E maila: 17 urtetik gora. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira, azaroaren 20ko eguerdiko 14:00ak baino lehen Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.

2019 PLAY ZIZURKIL

## PLAZIDA OTAÑO LIBURUTEGIKO III. BOOKTRAILER LEHIAKETA

Bi modalitate: norbanakoena eta taldekakoa (hiru edo lauko taldeak).

Taldekako arloan, epaimahaiak bi multzotan banatuko ditu lanak: DBH1-2 multzoko lanak eta DBH3-4 multzokoak. Hortaz, bi sari nagusi banatuko dira multzo bakoitzeko.

Norbanakoen modalitatean ez da bereiztuko adinik baina saritzerakoan kontuan hartuko da adina eta lanaren kalitatea.



## IKASTARO LABURRAK HELDUENTZAT

### CURSILLOS PARA ADULTOS:

**SUKALDARITZA IKASTAROA ATXULONDO TABERNAN, 19:00etan XABI TELLOrekin.**

Prezioa: 15€ ikastaro bakoitza (3 ikastaroetara 40€).

- **Urriak 15**: Udazkeneko sukaldaritza.
- **Azaroak 12**: Ehiza.
- **Abenduak 10**: Gabonetarako menua.

**BITXIGINTZA TAILERRA: larunbatetan 11:00etatik 13:00etara AGARA AGIRRErekin: urriak 5, 19, 26, azaroak 16, 30 eta abenduak 14. Prezioa: 60€).**

Ikastaro honetan esperimentazioaz gozatuko dugu gehienbat. Bitxiak egiteko dauden aukeretako batzuk ezagutuko ditugu eta teknika ezberdinak praktikan jarriz guretzako edo oparitzeko bitxiak sortuko ditugu.

Hiru ataletan banaturik egongo da ikastaroa erabiliko dugun materialaren arabera:

**PAPERA, METALA** eta **EHUNA.**

Ikastaroaren amaieran bakoitzak aukeraturiko materialarekin amaierako proiektu bat gauzatuko du.



## IKASTARO LABURRAK UMEENTZAT

### CURSILLOS PARA NIÑOS/AS:

**GYOTAKU TAILERRA ANDER ORTIZ DE MURUArekin ATXULONDO KULTUR ETXEAN, BI larunbatetan 11:00etatik 13:00etara.**

Bi txanda antolatuko dira:

- **Urriak 5 eta 19.**
- **Azaroak 16 eta 30.**

Tailer berezia izango da, bertan arituko baitira Uliazpiko kideak eta LH1-6 bitarteko umeak. Elkarrekin eta elkar lagunduz, artea landu eta arteaz gozatzeko parada ezin hobea. Txanda bakoitzean gehienez 8 ume onartuko dira eta heldu batekin etorri beharko dute.

Prezioa: 20€



## ERAKUSKETA:

ZIZURKILGO ESKULAN TAILERREKO IKASLEEN ERAKUSKETA

urriaren 15a arte ikusgai.

**EXPOSICIÓN DE LOS ALUMNOS/AS DEL CURSO DE MANUALIDADES.**



## BESTELAKOAK:

## GARAGARDO GAUA

*Herri gunean.*

Urriak 12

22:00

## AZOKA OSTEGUNETAN PLAZAKO ATERPEAN

### FERIA EN LA PLAZA LOS JUEVES:

Ostegunero, URRIAREN 3an hasita, 9:00etatik 14:00etara AZOKA izango da Zizurkilgo estalpean. Hurbildu eta animatu behar dituzuen gauzak erostera!

